



PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA ETA DIDAKTIKOA

Araudia:

- Azaroaren 8ko 1834/2008 errege dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta erregimen bereziko irakaskuntzetan irakasteko prestakuntza-baldintzak ezartzen dituena eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza-kidegoen espezialitateak zehazten dituena.
- Irailaren 23ko EDU/2645/2011 agindua, irakastearen ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat izan arren master-ikasketak egin ezin dituzten pertsona horientzat exijitutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren prestakuntza baliokidea ezartzen duena.
- Ekainaren 7ko ECD/1058/2013 agindua, irakastearen ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat izan arren master-ikasketak egin ezin dituzten pertsona horientzat exijitutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren prestakuntza baliokidea ezartzen duen irailaren 23ko EDU/2645/2011 agindua aldatzen duena.

Informazio orokorra:

Ordezko gaien zerrendetara sartu ahal izateko, baldintza espezifikoak da maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak, 100.2. artikuluan aipatzen duen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izatea. Irakaskuntza bakoitzerako ezarritako erregulatzearen arabera, zerrendak irekitzeko prozesuetan parte hartzen duten ordezko gaiei eta zerrendak birbarematzeko prozesuetan beste zerrenda batera sartzeko eskatzen dutenei exijitzen zaie baldintza hau.

Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoen espezialitateetako zerrendak irekitzen direnean exijitzeko modukoa da gaur egun baldintza hori.

Gaitasun pedagogikoaren ziurtagiriaren, espezializazio didaktikoaren tituluaren edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen duen Masterraren titulu ofizialaren bidez egiaztatuko da baldintza hori.

2008/2009ko ikasturteak bukatu aurretik bi ikasturte osotan, edo 12 hilabete jarraian edo etenekin, behar bezala baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, haien irakaskuntza-espezialitateak azaroaren 8ko 1834/2008 errege dekretuan arautzen diren maila eta irakaskuntzetan, irakatsi dutela egiaztatzen dutenei, irakaskuntza hori aipatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide gisa ezagutuko zaie.



Halaber, Maisu edo Maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren irakaslearen, Lehen Hezkuntzako Maisu edo Maistraren, Pedagogia eta Psikopegagogiako lizentziaturaren tituluak, edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa sartzen dituen titulazio baliokidea, dituztenei baldintza hori izatetik salbuetsiko zaie, titulu horiek 2009ko urriaren 1a baino lehenago lortu badituzte.

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko irakaskuntzetan, haien titulazioaren ondoriozko arrazoiengatik abenduaren 27ko ECI/3858/2007 aginduaren bidez araututako master-ikasketak egin ezin dituzten pertsonak, hots, Lanbide Heziketan irakastearen ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat dutenek, maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak, 100.2. artikuluan exijitzen duen prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokideren bat dutela egiaztatzeko ziurtagiri ofizial bat aurkeztu beharko dute. 2014ko irailaren 1a baino lehenago bi ikasturte osotan, edo hamabi hilabetetan jarraian edo etenekin, behar bezalako baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan irakatsi izana egiaztatzen dutenek ez dute prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza bete beharko.

Gasteiz, 2015eko abenduaren 9a